


# Pi zenbakia, nahierara




NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**P**osey konderria (Indiana, AEB), 1888. Edward Johnston Goodwin medikuak zirkuluaren koadratura aurkitu zuen. Bere ereduan, diametroaren eta zirkunferentziaren arteko koefizientea bost laurden zati lau zen; alegia, beretzat pi zenbakia 3,2 zela. Eta kito.

Antzinarotik hainbat matematikari saiatu zen zirkuluaren azalera soilik konpasa eta erregela erabilia kalkulatzeko; tresna horiekin zirkuluaren azalera berdina zuen karratua egin nahi zuten, zirkuluaren koadratura. 1882an Ferdinand von Lindemann matematikariak behin betiko frogatu zuen ezinezkoa zela, horrek ez zeukala inolako zentzurik.

Entzungor, bere metodoa AEBetan eta Europako zazpi herrialdetan patentatu ondoren, Goodwinek “egia matematiko berriaren” lege proiektua aurkeztu zion Indianako Batzar Orokorretako ordezkari bati, “hezkuntzari egindako ekarpen bat, Indianako estatuan doan erabili ahalko dena, 1897ko legegintzaldian ofizialki onartzen bada”. Indianako Ordezkarien Ganberak urte hartako otsailaren 5ean aho batez onartu zuen proiektua, aldeko 67 botorekin eta kontrako iritzirik gabe. Horrenbestez, Arkimedes oker zegoen eta piren balioa ez zen 3,14.

Proiektuak Senatuaren baiezkotza soilik behar zuen aurrera egiteko. Baina egun hartan, kasualitatez, Purdue Unibertsita-



XIX. MENDEAREN AMAIERAN, EDWARD JOHNSTON GOODWIN MEDIKUAK ETA INDIANAKO ORDEZKARIEN GANBERAK ERABAKI ZUTEN PI ZENBAKIAREN BALIOA EZ ZELA ARKIMEDESEK 2.000 URTE LEHENAGO KALKULATUTAKOA, 3,2KOA IZANGO ZELA HANDIK AURRERA.

teko matematika saileko buru Clarence Abiathar Waldo hantxe zegoen, fakultateko aurrekontua handitzeko eskaera bat egitera bertaratu baitzen. Senatarietako labur eta garbi azaldu ziren proiektu hura zentzugabekeria zela. Senatuaren hurrengo saioko kontakizuna egin zuen *Indianapolis News* egunkariak otsailaren 13an: “Zirkulua koadratzeko formula legeztatzeko proposamena jarri zen mahai gainean, txantxa giroan. Senatariak barregarri utzi zuten proiektua. Dibertimenduak ordu erdi iraun

zuen”. Eta proiektua bertan behera geratu zen betiko.

2009. urtean AEBetako Kongresuak martxoaren 14a Pi Zenbakiaren Eguna izendatu zuen, datak zenbakiarekin bat egin zezan. Baina Goodwinengatik balitz –eta Waldorengatik ez balitz–, ziurrenik martxoaren 20a aukeratuko zukeen horretarako. Izan ere, egun kongresu horretako kide diren askok, esaterako, Klima aldaketa ukatzen baitute kategorikoki, zirkuluaren koadratura topatu izan balute bezala. ●

## Vietnamgo gerra ez da bukatu

1961etik 1971ra AEBek 67 milioi litro agente laranja bota zituzten Vietnamentan 20.000 kilometro koadro baso eta 2.000 kilometro koadro labore lur suntsituz. Agentearen substantzietako batek, dioxinak, gizakiengan ere ondorio kaltegarriak izan zituen berehala: gibeletako eta azaleko arazoak, hormona desorekak... Baina dioxina erloju-bomba bat da, fe-

tuetan kalteak areagotzen baitira. Hala, garai hartan 4,8 milioi vietnamdarrek arnastu zuten dioxina, hainbat eremu oraindik kutsatuta daude eta hiru belaunaldi geroago ez dirudi agente laranja-aren eraginak atzera egingo duenik. Nguyen Van Phuc beteranoaren hitzetan: “AEBek, belaunaldiz belaunaldi, vietnamdarrek hiltzen jarraituko dute”. ●



AEB-ETAKO AIRE ARMADAREN ARTXIBOA